

VI. TTIKLIK! IDAZLAN LABURREN LEHIAKETA

Gurasoei gutuna: "Gure gurasoei esan nahi dizkiegun hitzak gutun laburren bidez adierazteko aukera."

GUTTUNAK BIDALTZEKO EPEA,
IRAILAREN 15ETIK AZAROAREN 10ERA.



www.gurasoeigutuna.eus

GURASOEI GUTUNA ekimena, auto-istripuz galdu genituen gurasoei idazteko aitzakia moduan sortu zen 2013. urtean. Urte horretan, gure gurasoek istripua izan zuteneko 15. urteurrenean, omenaldi bat egiteko asmotan jarri genuen martxan idazlan lehiaketa hau. Hitz batean esanda, gurasoei esan nahi dizkiegun hitzak gutun laburren bidez adierazteko aukera da GURASOEI GUTUNA ekimena. Juanita Amundarain Otegi eta Juan Miren Mendizabal Benito. Zuentzat eta zuengatik. Gure gurasoengandik hasi eta besteen gurasoenganaino.

Itxaro Mendizabal Amundarain - ttiklik elkargunea

TTIKLIK! IDAZLAN LABURREN LEHIAKETAK, 2013. urtean du bere sorrera. Urte horretan bete bait ziren 15 urte gure GURASOAK auto-istripuz joan zirela. Galdu genituen guraso horiei, eta beste guraso guztiei omenaldia egiteko asmotan, idazlan laburren lehiaketa honi 'GURASOEI GUTUNA' izena jarri zitzaion.

Lehiaketa honen helburua, bakoitzak bere gurasoei esan nahi dizkien hitzak gutun laburren bidez adierazteko aukera ematea da. 7 urtetik hasita muga gabeko jende guztia animatu nahi dugu idaztera. Oтик 6ra bitarteko haurrak ere, marrazkien bidez, GURASOEI esan nahi dietena espresatzeko aukera irekia dute.

GUTTUNAK BIDALTZEKO EPEA, IRAILAREN 15ETIK AZAROAREN 10ERA.



ARAUAK:

1. Parte hartzaileak: nahi duten guztiak.

2. Idazlanaren ezaugarriak: `gurasoei gutuna` lemapean nahi den modukoa; luzera: 2 orrialde (DINA4) gehienez, ordenagailuz (verdana hizkia, 11 puntukoa) eta euskaraz idatzia (eskuz idatzitakoak ere onartuko dira)

Haurtxoak 0-7 urte:: GURASOEI MARRAZKIA luzera: ORRIALDE 1 (DINA4). Ordenagailuz edo gutunez bidalia.

3. Mailak:

– Haurtxoak 0-7 urte:: GURASOEI MARRAZKIA

– Gazteak multzo hauetan banatuak: (Zozketa bereziak partehartzaile guztien artean)

6-11 urte

12-18 urte

– Helduak (18 urte baino gehiagokoak)

Parte hartzaile bakoitzak idazlan bakarra aurkeztuko du, argitaratu gabekoa, originala eta beste lehiaketa batean saritu gabekoa.

4. Lanak aurkezteko epea: 2018ko irailaren 10etik azaroaren 20ra.

Gutunez auzetu nahi bada, honako helbide honetara bidali behar da: TTiKLiK!ELKARGUNEA, Zelaeta Berri Plaza 3, 20200 Beasain (Gipuzkoa). Gutun-azalean "Idazlan laburren lehiaketa" jarriko da.

Mezu elektronikoz auzetu nahi bada, hurrengo helbide honetara: info@ttiklik.com



Barruan sartuko den gutun-azal txikian jarriko dira lanaren izenburua, egilearen ezizena, eta maila. Gutun-azal itxi horren barruko orrian idatziko dira datu pertsonalak: izen-abizenak, helbidea, adina, telefonoa eta ikastetxea (haur eta gazte mailan aurkeztutakoetan). Mezu elektronikoetan gauza bera egingen da artxibo erantsi batean.

Arau hauek betetzen ez dituzten lanak, lehiaketatik at geratuko dira.

5. Sariak: Maila bakoitzean sari bana banatuko da.

6. Esleipena: Sariak 2018ko Azaroaren 24an emango dira.

7. IRRIEN LAGUNAK eta TTiKLiK!ELKARGUNEA-k beretzat gordetzen dituzte saritutako obrak argitaratzeko eskubideak, baita iragarritako sariak aldatzeko eskubidea ere. Idazlanak ez zaizkie itzuliko egileei.

8. Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin darama aurreko arau guztiak onartzea.



"Badira mila gauza buruan bueltaka ditudanak, mila eta bat agian... ez dakit gutun batean denak kabituko ote zaizkidan, baina saiatuko naiz.

Ondo baitakit, barruan ditudan mila eta bat gauza horiek ateratzen ez baditut ez dudala nire barruan bakerik izango."

Barruko korapiloa askatzeak zenbat gauza on ekarriko dizkigun badakigunez, zuek ere gauza bera egitera animatu nahi zaituztegu.

Zergatik ez idatzi paper batean gurasoei esan nahi diegun hori? Esatera ausartzen ez garen hitz horiek?

ez dira gauz danak eskutitz batean kabitzen... baino bat baino gehiago idatzi daiteke... edo bat idatzi eta esan nahi denaren zatitxo bat atera... zoragarria da nola transformatu dezun min egiten dizun zerbait, pertsona askori lagun diezaiokeen zerbaitetan...

Ama, orain aste batzuk, nire mundu ilunegi honetan nengoela, lagun bat egin nuen, niri eta ni bezalaxe amarik gabe geratu diren umetxo guztiei laguntzeko prest dagoen lagun bat: Itxaro. Iratxo bat dirudi, mundu ilunegietan bizi direnei itxaropena ematen dioten iratxo berezi horietako bat. Berak ere ama oso gazte galdu zuela kontatu zidan, berarekiko zuen maitasuna, miresmena eta esker ona nahi bezain bestetan adierazi gabe. Eta sekretutxo bat ere kontatu zidan:

ikasi duela ama nolabait gertu sentitzen, eta hori ikasi duenetik lasaiago bizi dela!!!!

Eta berak irakatsiko omen digu amarik gabe geratu garen haurroi ama gertu sentitzen; berak irakatsiko omen digu zuei esateko dugun guztia zuenganaino nolabait helarazten. Ai amatxo, ez da zure alboan egotea bezalako izango, ez, baina... bada zerbait... Eta laguntza, itxaropen edota Itxaro horri esker, uste dut, ama, uste dut, lortu ahalko dudala berriro ere noizbait irri egitea. Besarkada handi eta goxo bat, ama! Eta nola egin ikasten dudanean, hasiko naiz gure etxeko eta nire bihotzeko kontutxo guztiak zauden lekuraino helarazten.

Ane

